

Izañak

SINOPSIS

XVIII. mendean, Euskal Herriko herri txiki batean, Agedak semea galtzen du erditzean. Bere senarrak, Pedrok, bera salbatzea erabakitzen du haurra salbatu beharrean, eta horrek haien harremana apurtu egiten du. Doluan murgilduta, Agedak bularretan min jasanezina pairatzen du mastitisaren ondorioz. Mina arintzeko esnea ateratzea beharrezkoa da. Bere senarrarekin duen tentsioaren aurrean, Agedak Herriko *“Mamoiarengana”* (bularrak zurpatzen dituen persona) jotzen du. Pertsona honek gaixotasun mota hauek arintzeko bularrak zurpatzen zituen eta garai hartan lan klandestinoak zen.

Mamoia Agedaren etxera sarritan joateak emozio kontrajarriz beteriko harremana sortzen du, desira, errua eta kontsolamendua esate baterako. Saioetako batean, ezustekabe bat izaten dute eta *Mamoia* ikaratu egiten da. Horrek herriko superstizioak elikatzen ditu Agedari buruz (sorgina delaren susmoa daukate). Gizartearen presioak eta zurrumurruek senar-emaztearen arteko gatazkak larriagotzen dituzte, eta Pedrok Agedari *Mamoia* berriz ikustea debekatzen dio.

Etsipen une batean, Agedak *Mamoiarekin* sekretuan elkartzea erabakitzen du. Baina senarrak aurkitzen ditu, eta horrek gatazka bortitza eragiten du, *Mamoiak* Pedroren heriotza eragin arte, nahi gabe.

Azkenik, herriko emakumeak dira, gizonak Ageda sorginkeriagatik bizirik erre nahi duten unean, ausardiaz haren bizitza salbatzen dutenak. Emakumeen amorru kolektiboak, urte luzez patriarkatuaren erregimenaren zapalkuntzapean egon diren arren, elkartasun keinu batean bat egiten dute.